


Astekaria

BARRREN

elgoi



Hezkuntz sistema urratuz

HERRI BATASUNAREN MITINA

Larunbata 22, eguerdiko 12,30etan Plaza Haundian

HIZLARIAK: Arnaldo Otegi eta Rafa Diez

*Gaur egun ez dugun botere politikoa
beharrezkoa zaigu krisiari aurre egiteko.*

3 LAU HANKATAN

"Hamazazpi mila emakume "neskamē" lanak egiten ari dira gaur Euskadin, erdiak inolako segururik gabe daudelarik" **Joxin Arregi.**

7 ERREPORTAIA: ZEIN ERABAKI HARTU: IKASLEAREN DILEMA

Institutura joan, REMa egin, Modulu bat burutu, hiru urteko karrera ala bost urtekoa... Zein bide aukeratu, norberak nahi duena egiteko?

10 ARRAZOIAK ERDIBANA: IKASKETA ERTAINAK ETA GERO ZER?

Iñigo Otaño: "Nik neuk, Unibertsitatera joatea erabaki dut eta datoren urtean Bilboko Ingenieritza fakultatera joango naiz."

Ruben Romera: "Makina Herramientaren adarra oso gustoko dut; lan munduari begira, etorkizunean aukera gehiago eskaintzen ditu."

16 BERBETAN

Txomin Mujika: "Musika mundua ez da nik uste naban bezain ideala".

18 KIROLA

GAIA: ELGOIBARKO MENDI ITZULIA

ELKARRIZKETA: **Yolanda Mateos,** EUSKADIKO FUTBOL SELEKZIOKOA

21 KULTURA

EUSKAL TELEBISTAK BANDAREN IGANDEKO KONTZERTUA GRABATUKO DU.

FARMAZIAK:

22, larunbata: ORMAZABAL

23 igandea: ORMAZABAL

24, astelehena: ETXEBERRIA

25, asteartea: ETXEBERRIA

26, asteazkena: ETXEBERRIA

27, osteguna: ETXEBERRIA

28, ostirala: ETXEBERRIA

OKINDEGIAK:

14, igandea: BOUTIQUE DEL PAN



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa)743936

Odol Emaileen elkarte.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak740442

PESA (Eibar)112131

Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

TXANDAK

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegi

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton
Bergara, Edurne Bilbao,
Rosa Iriondo, Jose Inazio
Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Administrazioa
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste

Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola,
Joxin Arregi, Belen
Arrizabalaga, Bertso Eskola,
Agur Miren Barandiaran,
Lorea Gorostiaga, Hasier
Etxeberria, Maite Iriondo,
KOKOE, Imanol Larrañaga,
German Meabebasterretxea,
Susana Mugika, Jasone
Osoro, Diana Perez de
Albeniz, Lorea Perez de
Albeniz, Segundo Raigoso,
Eduardo Sanz, Aitor
Zabaleta, Javier Zarzuelo.

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Helbidea
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
SS-1.038/92

ISSN
1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Josin Arregi

Zanpatuenak

Hamazpi mila emakume “neskame” lanak egiten ari dira gaur Euskadin, erdiak inolako segururik gabe daudelarik.

Eusko Jaurlaritzak berak dioenez, beraietako asko kultura gutxiko emakumeak dira eta ez dira inolako eskubideen jabe sentitzen. Lan orduak asko, soldatak txikiak, eta opor egunak erabat murriztuak dira beraien ezaugarri nagusienak.

Beraien lantokia etxea da, besteen etxea noski, eta beraien nagusiak era askotako gizon-emakumeak dira, teknikariak, langileak, enpresariak eta abar. Baina ez da ezberdintasun handirik izaten bat ala beste izan. Zoritzarrez gehienak nahiko gaizki jokutzen ari dira beraiekin.

Lan munduak ezin du inolaz ere ahaztu orain dela 85 urte 129 langile, guztiak emakumeak zirelarik, 10 orduko lana eta gizonezkoek zituzten eskubide

berdinak eskatzeko lantokian itxi zirela, lantokiari su eman eta barruan zeuden 129 emakume horiek erre zituztela beren nagusiek.

Orain, 100 urte ondoren, Euskadin 200.000 pertsona daude langabezia; horietatik 112.000 emakumeak dira. Emakumeen langabezia soilik hartuz gero, Euskadik EEEko langabezia kopuru handiena du. Honez gain lanean ari diren emakumeek gizonezkoek baino %21 gutxiago irabazten dute lan berdinatik.

Euskaraz, ingelesez edo erdaraz hitz egin, badirudi gizonezkoak ez dugula arazo honetan pausu handirik eman.

Hala ere, gizon eta emakume guztiok dugu etxeetan dauden langileen eskubideak errespetatu beharra.

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGUROAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

Fotero
OKINDEGIÆ
OPILEDGIÆ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

**Ikastola publiko
ala pribatua**

***INOR BAZTERTU ETA DISKRIMINATU GABE, DENONTZAKO ESKOLA NAHI DUGULAKO.**

Ez dugu nahi gehiengo-arentzako eskola, guztiontzat baizik. Nahiz eta ikastolak sare pribatuan kuota onargarri bat planteatu, gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoa kontutan izanik, ez dugu uste honek aipatutako helburua (DENON ESKOLA IZATEA) ziurtatzen duenik.

***HERRI EUSKALDUN ETA EUSKALTZALEA ERAIKITZEN LAGUNDU NAHI DUGULAKO.**

Eta hori posible izan dadin, ez dugu inola ere bultzatuko hil ala biziko kompetentzia dinamizarik, herri honetako euskal eredu eskeintzen duten ikastetxe publiko eta ikastolaren artean. Gure ustez, herri honen euskalduntzeak denon arteko ahalegina eta indar bateratzea eskatzen du eta ez elkarren arteko lehia eta alferrikako norgehiagotan indarrak galtzerik.

***SARE PUBLIKOAN GURE HIZKUNTZ PROIEKTUA AURRERA ATERA DEZAKEGULAKO.**

Titularitate aldaketa

batengatik, Ikastolak duen ondasuna ez da desagertzen, bertan jarraituko baitugu oraingo guraso eta irakasleok elkar lanean, ditugun asmo eta helburuak lortu nahian, hau da, denon artean eraikitzen ari garen hezkuntz proiektua bultzatzen, hori baita azken batean, Ikastola honek duen, Ikastola honetan dugun, benetako ondasuna.

Guzti honegatik, bat gatz "Denon artean" Euskal Eskola Publikoaren aldeko plataformarekin (Ikastolak bere momentuan adierazi zuen bezelaxe), ondorengo hau dionean: "Beharrezkoa iruditzen zaigu printzipio eta ardatz hauek (Titularitate publiko, Autonomia, Hezkuntz komunitatearen ahalmenak juridikoki errekonozitzea, Finantziario publiko, Lan marko berria) izango dituen Euskal Eskola Publiko berria lortzeko lanari ekitea. Eta ahaleginak egingo ditugu lan hau sare publikoaren barruan bideratu ahal izateko".

Idatzi honekin bat egingo dugulakoan nahi eta nahiezkotzat jotzen dugu bide publikoari heltzea.

Horrela izango delakotan agurtzen zaituztegu.

Elgoibarko Ikastolako 72 guraso eta irakasle

Ikastolaren alde

- Lege honek, guk aldarrikatzen dugun Euskal Eskola Publikoa garatzeko aukerarik ez digu uzten.

- Euskal Eskola Publiko Berria nahi dugu eta ez administrazioak eskeintzen diguna.

- Orain arte bezela, **GURE APUSTUA IKASTOLAREN ALDE EGITEN DUGU.**

* Inor diskriminatu eta baztertu gabe.

* Euskalduna eta kalitatezko hezkuntz proiektua aurrera atereaz.

* Beste eskola eta ikastolekin kolaborazioa areagotuz.

* ...

- **IKASTOLAKO LANGILEEN ASANBLADAN EGINIKO BOZKETA HORRELAXE SUERTATUZEN:**

.Sare publikoan integraztearen alde: 16

.Ikastola orain bezala jarraitzearen alde: 25

.Zuriz: 2

.Baliorik gabeak: 1

.Abstentzioak: 1

Ikastolako langile eta guraso talde bat

Elgoibarko Herri Eskolen oharra

Polemikan sartzeko asmorik gabe eta Heziketa plan bateratu eta aberatsago baten asmotan, Elgoibarko eskola publiko deitutako (guk nahiago genuke "Herri Eskola" izendatu) zuzendaritzak honako zehaztasun hauek egiten dizkio Elgoibarko herriari:

- Aspalditik irakaskuntza sistemak dakartzen oztopo eta trabak ezagutu eta nozitu ere egin ditugula eta aldaketak lortzeko asmotan saiatu ere bai.

- Guraso, irakle eta irakasleen lankidetzaz gure ustez lorpen aipagarriak ere badi-rela eta bide onetik goazela.

- Lege berriak bere akats eta gabeziak ahaztu gabe, bide egokiak ere eskaintzen dituela, gure ustez.

- Ez direla, beraz, egia, Ikastolako Junta Errektorak Sistema Publikoaren kaltean egin dituen zenbait adierazpen. Barnetik ikusten dugula Elgoibarri dagokion **HEZIKETA PLANGINTZA** egoki samarra **POSIBLE** dela. Areago, guztiok **BAT** egiten badugu.

- Gu, lan horretarako **PREST** gaudela, euskal eskola publiko **BERRIA** lortzea baita gure helburua ere.

Herri Eskolako Zuzendaria
Elgoibarko Institutua
E.L.H. I

MALAPE

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

Iraegui

ERROTULAZIOA

☎ 74 39 52
San Antolin 74 37 06

Lanbide Heziketarako Institutua

"Irakaskuntza publikoak kalitatea du helburu"

Orain arte eduki dugun legearekin emaitza handiak lortu baditugu ere, Eskola Publikoaren lege berri honen markoan egingo dugun ekonomi eta pedagogi gestioa askoz hobea izatea espero dugu.

-Atzo "Mekanika", gaur Lanbide Heziketarako Institutua. Zer da erreformak aldatu duena?

Lanbide Heziketa Institutua erdipurdi zebilenarekin erlazionatu izan da beti. Ideia hori aldatu egin da. Prestakuntza erabat ezberdina da orain. Bai gure aldetik, eskolaren aldetik, bai enpresen aldetik ere. Hezkuntza sistema berriak aukera gehiago eskaintzen ditu. Hezkuntza orokor eta oinarrizkoa jaso ondoren 16 urterekin lehengo aukera eskaintzen zaio ikasleari: Modulo II. 18 urterekin beste irtenbide bat dauka: Modulo III. Moduloen bidez hezkuntza askozaz espezifikoagoa eta teknikoagoa ematen zaio ikasleari. Selektibitatea atera ondoren diplomatura egin dezake edo, nahi izanez gero, karrera ere bai. Horrela funtzionatzen du hezkuntza sistema europarrak. Gure eskolak Modulo II eta III egiteko aukera eskaintzen du.

Sistemaren beste abantaila zera da: lan mundutik datorrenari ere moduloa egin eta titulua lortzeko aukera ematen zaio.

-Enpresekiko harremanak ere aldatu egin al dira?

Erreformak aberastasuna ekarri digu. Hau da, orain enpresetan praktikak egitera behartuta gaude. Enpresek badakite nola hezitzen ditugun ikasleak eta guk badakigu zer nolako lana egiten duten enpresek. Teknologia aldetik, enpresen mailan gaude. Enpresek gugana jotzen dute teknikoan bila; elkarren arteko komunikazioa oso sendoa da.

-Eskolaren barne-egiturari begira, zein da gaur egungo egoera?

Lehen urratsak bakarrik eman badira ere, hiru mailatan gertatu dira aldaketak.


▶ Antolakuntz autonomia:

Enpresek antolakuntzaren

barruan sartzeko aukera dute. Eskola organu gorena den horretan, eskola kontseiluan, ikasleak, irakasleak, gurasoak eta zuzendaritza daude. Udala kontseiluaren partaide da eta enpresak ere izan daitezke.

▶ Gestio ekonomikoa:

Gu orain arte administratzaile hutsak izan gara. Ez geneukan erabakirik hartzeko ahalmenik. Hezkuntza Saitetik ikastetxe piloto batzuk izendatu dira ekonomikoki beren burua antola dezaten. Gipuzkoan 4 LHI hautatu dira eta orain arte izan dugun dinamika biziagatik horietako bat gu izan gara. Oso garrantzitsua da guretzat autonomia



Estanis Osinalde, L.H.I.ko zuzendaria

ekonomikoa. Abantailak asko dira; egitura ez hain itxi batek gure planteamenduak aurrera eramateko aukera ematen digu. Urtean zehar beharren arabera antolatzen dugu dirua.

▶ Pedagogi autonomia:

Pedagogikoki aspaldi utzi genituen programa ofizialak alde batetara. Gure kontura irakaskuntza errealitatera egokitzen saiatu gara. Autonomiari esker, lehen egiten genituen gauzak marko legalaren barruan egiten ditugu orain. Pedagogi autonomiari esker gure herriko beharrei erantzuten dien hezkuntza sistema eskaintzen dugu.

-Pasa den ostegunean, Hezkuntza sailburua, Fernando Buesa, eskola kontseiluan izan zen...

Nahiz eta Hezkuntza sailarekin gauza askotan bat ez etorri interregarrizat jo genuen berak aurrez aurre gure Institutoari emandako ekonomi autonomia azaltzea, besteak



Fernando Buesa, Hezkuntz Sailburua azken Eskola kontseiluan izan zen. beste.

Aste honetako erretratu **Ana Mari Igartuak** laga digu. Berak esan digunez, erretratu San Frantzisko kalean dagoen Karkizano dendan (ez da publizitatea!) atera zen 1935. urtearen inguruan.

Jakin dugunez josten erakusten omen zieten Elgoibarko emakumeei; emakumeei diogu, ez baitugu gizonezkorik inondik inora ikusten. Ez dakigu josten zenbaiterainoko abilezia hartuko zuten baina herriko gorabehera eta txutxumutxuen berri izateko "forum" aproposa dirudi.

Itxuraz ere apenas jostun pinta handiegirik duten. Beharbada, kurtso hasieran aterakoa izango da. Konturatu al zarete denen artean ez



dutela antieju pare bat? Jostun gehientsuenek betaurrekoak erabiltzen zituztelakoan geunden, itxurarako lepotik zintzilik besterik ez bada ere, baina erretratukoek garbi erakusten digute bista arazoak "aro modernokoak" direla.

Bromak alde bateta-

ra utzita, ikus dezagun zeintzuk diren jostungai hauek:

Zutik, ezkerretik eskumara: **Josefa Badiola** eta **Maria Iriondo**.

Bigarren iladako hirukotea: **Josefa Urain**, **Josefa Bastida** eta **Dioni Aranberri**.

Eserita: **Emilia Etxeberria "Seroria"**, **Teresa Osoro**, **Asuncion Gabilondo**, **Maria Gabilondo**, **Luisa Ibarrene** eta **Juanita Etxabe**.

Lurrean eserita: **Juanita Arrieta**.

BEKI
KROIERAKOZAPAI-
IK
adidas
NIKE AVA
Reebok
ROSARIO, 31


ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA - F.M. 87.7
24 orduz
zuekin
Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar
☒ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

JAUREGI
INPRIMATEGIA
KATALOGOAK-LIBURUXKAK
INPRIMAKIAK
TIPOGRAFIA ETA OFFSET
LIBURUDENDA-PAPERDENDA
San Frantzisko, 20.
Tel: 74 13 29

XIRULA
Hanburgesia
Hanburgesak
Sandwichak
Saltxitxak
Solomoa
Txanpiak plantxan
Bokatak
Plaza txikia z/g Tel: 74 36 95

Zein erabaki hartu: ikaslearen dilema

Edozein ikasketa ziklo bukatzean, galdera berdina datorrigu beti burura. Zer egin datorren urtean? Badira txikitatik bere burua ogibide bat burutzen ikusten dutenak, baina askok edo gehienek ez dute jakiten normalean nondik jo. Institutura joan, REMa egin, modulu bat burutu, hiru urteko karrera ala bost urtekoa... Zein bide aukeratu, norberak nahi duena egiteko? Gainera, hezkuntz sistema aldatzen ari da eta eskaintza lehen baino zabalagoa da. Erreportaia honen bidez, aukera ezberdinak eta herriko ikastetxe bakoitzean zer irakasten den eta zertarako, aztertzen saiatuko gara.



REMeko 2. zikloan Batxiller administratiboa edo Teknikoa egin daiteke

Oinarrizko Heziketa Orokorra bukatzean Eskola Graduatu titulua eskuratzen da. Horretarako OHOKO ebaluaketak positiboa izan beharko du. Ikasketa ziklo hau bukatzean aukera ezberdinak izango ditu ikasleak. Batetik, balio akademikoa duten ikasketekin jarrai dezake: BBB, REM... Eta bestetik, balio akademikorik ez duten heziketak burutu ditzake, hau da, heziketa okupazionala. Honetan, IKASBAT taldeak

tailer ezberdinak eskaintzen ditu: sukaldaritza, igeltsaritza, iturgintza...

Balio akademikoa duten ikasketak burutzean egin beharko du ikasleak lehen aukera. Momentu honetan, bi bide ezberdin eskaintzen dizkio hezkuntza sistemak ikasleari: BBB eta REMa.


Batxillergoa: BBB eta REM

Batetik, Institutura joan eta BBBa burutu daiteke. Aukera hau egitekoan, Eskola Graduatu titulua eduki

behar da. REMa egiteko, ordea, OHOKo 7. maila gaindituta eta 8. maila kurtsatuta eduki behar da. Aukera hau Lanbide Heziketa Institutuan edo Meka izenez ezaguna den zentruan bakarrik egiten da.

Batxillergoa beraz, BBBa eginda edo REMa eginda burutu daiteke. BBBa aukeratzen dutenek, Unibertsitari ikasketekin jarraitzeko egin ohi dute. Baina ez beti. BBBa eta UBIA egin ondoren moduluren bat

Hezkuntz Sistema



Ikasketak eta ikastetxeak Elgoibarren:

- BBB eta UBIBatxilleergo Institutua
- REM eta LH II.....Lanbide Heziketa Institutua
- Modulo 1Ikasbat
- Modulo IILanbide Heziketa Institutua
- Modulo III.....Makina Herraminta Institutua (IMH) eta datorren urtean Lanbide Heziketa Institutuan ere.

edo LHa egiteko aukera egon bada-go, eta izan ere, ikasle askok aukeratzen du bide hori (ikusentzute...).

REMa aukeratzen dutenek, guztiontzat amankomuna den lehen zikloa burutu beharko dute. Lehen zikloa egin ondoren REMeko bigarren zikloa burutu edota BBBko 3. mailara pasa edo modulo II egin dezake ikasleak. BBBa burutzen ari den ikasle batek, ordea, ezin du REMera pasatu. REMeko bigarren ziklora pasatzean zer batxiller mota burutuko duen aukeratu beharko du ikasleak. Euskal Herrian lau batxiller mota daude, baina Elgoibarko Lanbide Heziketarako Institutuan, bi irakasten dira: Batxiller teknikoa (BTI) eta Batxiller administratiboa (BAG).

REMeko bigarren zikloa burutu ondoren edota UBIa egin ondoren selektibitatea pasa behar da unibertsitatean edo goi eskola teknikoan sartzeko. Unibertsitate eskola batean sartzeko, (erizaintza, optika, ingeneritza teknikoak...) legez, ez da beharrezkoa selektibitatea gainditzea baina, masifikazioa dela eta, erabakiorra bihurtu den baldintza da.

Unibertsitatera joatea erabakiko balu ikasleak, batetik, hiru urteko karrera, eta bestetik, bost urteko karrera egiteko aukera izango du. Unibertsital ikasketen booma dela eta, izugarri masifikatu dira fakultateak eta lanerako irtenbide kaxkarra ikusita, gero eta gehiagok aukeratzen ditu lanbide heziketa zehatza eskaintzen duten ikasketak.

Lanbide Heziketa: LHI eta LH II

Lanbide Heziketaren lehen zikloa desagertzeaz dago. Bi urteko ziklo hau burututa, "tecnico auxiliar" titulu eskuratzen zen. Orain LH II hiru

ASGI

taberna

Urasandi 1,2.zbk.
Tel: 74 28 38

GARATE

JANTZI - DENDA

Bartolome Deunaren Kalea, 13 . Tel: 74 11 29.ELGOIBAR

INTXAURRAGA

zerbitzu aukeratua

•••• SECUC ••••

San Roke 11, Tel. 74 18 37

urtetan egiten da eta berau egiteko REMa edo lehen zikloa gainditu behar da. LH II bukatzean hiru urteko unibertsiari ikasketak egiteko aukera dute. Egokitze kurtsoaren bidez soilik egin ahal izango lukete goi mailako ikasketarik. Gaur egun, automozioa irakasten da Elgoibarko Lanbide Heziketan. Administrazioa, batxiller administratiboan sartuta dago eta metala derituzon adarrerako duela urtebete sortu zen Makina Herraminta Institutua.

Zer dira Moduluak?

Moduluak, lanbide batetarako heziketa ematen duten izaera profesionaleko irakaskuntza esperimentalak dira. Heziketa profesional espezifikoa da. Moduluetan ikasten diren ikasgaiak profesionalki hezitzeko pentsatuta daude eta heziketa orokorreko izaera duten ikasgaiak, hau da, historia, matematikak etab. ez dira ematen, heziketa orokor hau emandakotzat jotzen baita beste ikasketen bidez.

Elgoibarko IMHa eta Lanbide Heziketa Institutuak Modulo Iia eta Modulo IIIa burutzeko aukera eskaintzen dute.

Modulo Iia

Modulo hau burutzeko LHko lehen zikloa, REMeko lehen zikloa edo BBBko bigarren maila burutu behar da. Lanbide Heziketa Institutuan Barne Merkataritza irakasten da Modulo Iiaren barruan. Ikasturte honek urtebeteko iraupena du. Modulo Iiak erdi mailako heziketa profesional espezifikoa ematen du. Autonomia piska batekin eta erdizka kualifikatutako lana burutzeko prestatzen dira ikasleak.



↳ I.M.H.ko Modulo IIIan goi mailako heziketa tekniko praktikoa jasotzen da.

Modulo IIIa

Elgoibarren Modulo IIIa egiteko aukera eskaintzen duen zentru bakarra IMHa da. Datorren urtean Lanbide Heziketa Institutuan enpresen administrazio eta gestioari buruzko Modulo IIIa hasiko da.

Makina Herraminta Institutuak metalaren adarra zena bereganatu du eta gaur egun, makina herramintarekin lotutako ikasketak burutzen dira bertan. Modulo IIIa bi ikasturtez osatua dago. Lehen ikasturtea amankomuna da guztientzat eta bigarren ikasturtean bakoitzari dagokion heziketa ematen da.

Modulo IIIan goi mailako heziketa espezifikoa jasotzen da. Ikaslea, lan kualifikatua, autonomia eta teknikoa (espezialista), burutzeko prestatzen da, koordinazio ardurak hartuz.

Makina Herraminta Institutuan, III. mailako hiru modulo ezberdin egin daitezke: proiektatzaile industrial, fabrikazio mekanikoa eta sistema automatizatuen muntaia. Lanbide Heziketa Institutuan Batxiler Teknikoa egin dutenek modulo hauetara zuzenean sartzeko aukera izaten dute eta UBTik datozenek, berriz, froga bat pasa behar izaten dute.

IMHn irakasten diren moduluak lan mundurako prestakuntza emateko zuzenduak daude. Dena den, Institutuan bertan, moduloen osteko postgradu ikasketak ematen dira. Aurten postgraduko kurtso bakarra eman da: Kalitatearen gestio eta kontrol arduraduna. Datorren iraile-rako, ordea, beste bi postgradoko kurtso emango dira: bata, izaki industrialen teknika eta bestea, sistema automatizatuen teknika.

OINETAKOAK
San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

PUB

elgoibar

Ikasketa ertainak eta gero zer egingo duzu?

Berez, Unibertsitatera joatea aukera bat besterik ez da teorikoki, hau da, zenbait irtenbide desberdinen artean hautatu beharreko bide bat, aukera zabalekoa gainera. Nik neuk, Unibertsitatera joatea erabaki dut eta datorren urtean Bilboko Ingenieritza Fakultatera joango naiz.



Norberak bere interes eta beharrei begira egiten duen aukeraketa bat da, eta badirudi guk aukera ditzakegun bide bakarrak moduloak eta Unibertsitatea direla. Moduloetara doazenek praktikotasuna, epe laburrago batetarako lana bilatzen dute. Unibertsitatera doazenek berriz, ikasketak sakonagoak egin nahi dituzte.

Unibertsitateak bere oztupoak ere baditu. Hasteko ekonomikoak; askoz garestiagoak eta luzeagoak baitira ikasketak eta ez edonoren poltsikorako. Gainera, zailagoak dira, dedikazio handiagoa eskatzen baitute. Baina hala ere, normalean, ez beti ordea, irtenbide hobeak eskeintzen dituzte, hau da, lanpostu hobeago bat lortzeko ahalbidea.

Unibertsitatean sortu izan den beste arazo bat gustukoak ez diren ikasketak egitearena da. Nota media edo beste ahalbide faltagatik, askotan ez duzu gustutuko litzaizukeen ikas-

ketak egiteko aukera. Honela, frakasoaren eragile nagusienetarikoa bat den motibazio falta ere ageri daiteke.

Gainera, askotan ez dakigu ondo aukeratzeko. UBI kurtsoa, teoriarik Unibertsitatera bideratzeko ikasturtea da, baina praktikan ez du inolako orientaziorik eskeintzen. Karrera bat aukeratzeko garaia helitzean, askotan ez duzu karrera bakoitzaren ideia zehatz bat izaten eta zenbait kasutan aukeraketa itsu-itsuan egin ohi da. Informazioa berez, ematen da, baina informazio hotz eta hutsa, orientatu gabekoa. Sistema akatsa da hau.

Azkenik, Unibertsitateko ikasketak aukeratuz gero, mundu zabal batean sartzen zarela aipatu behar da, eta bertan aukeraketa on bat egiten saiatu behar dela, aipaturiko orientazio faltaren oztupoaz gaindi.

Iñigo Otaño
UBIko ikaslea



Nik lehenengo bi urteetan REMa egin nuen. Ondoren Batxiller teknikoa, batxiller administratiboa eta Lanbide Heziketa egiteko aukera neukan. Nik Batxiller Teknikoa

aukeratu nuen: "Fabrikazio mekanikoa", III. Moduloa egin nahi nuelako. Makina harramintaren adarra oso gustukoa dut, gainera, lan munduari begira, etorkizunean aukera gehiago eskeintzen dituela uste dut.

Unibertsitatera joateko aukera ere hor dago. Urteetan zehar, ziklo ezberdinak burutu ditudan heinean aukera hori baztertu egin dut. Zergatiak bat baino gehiago izan dira: Batetik, bost urtetako karrera bat egiteari, gogorra izateaz gain, luzeegia deritzot. Bestetik, nire inguruan Unibertsitatean ibili direnak eza gutzen ditut eta karrera bukatzean ezin izan dute ikasitako alorrean lanik topatu. Izan ere, asko tailerretan daude lanean orain. Gainera Unibertsitate fakultateetan teoria asko eta praktika gutxiegi ematen dute. Karrera bukatu eta askotan jendea ez dago profesionalki ondo prestatua.

Gainera, esan daiteke, azken urteotan modan jarri dela Uni-

bertsitatera joatea. Jende gehiegi dago eta klaseak masifikatuak daude, horrek dakartzan ondorio negatibo guztiekin.

Moduloetan oraindik ez da horrelakorik gertatu eta bertan, heziketa espezializatuagoa eta profesionalagoa ematen dela uste dut. Argi daukat Batxillergo Teknikoa bukatzean Modulo IIIa dela ikasketak biribiltzeko dudak aukerarik egokiena eta hori egingo dut.

Garrantzitsua da norberak zer egin nahi duen jakitea. Zirkuntantzia hori lanpostu batekin egokituko balitz are hobeago izango litzateke.

Ruben Romera
BTIko ikaslea

ETA ZURE USTEZ?

Ikasketa ertainak eta gero zer egingo duzu?



Juan Jose Babarro
17 urte, 3.BBBko ikaslea
Sukaldaritza egin behar dut Donostian. Nire ustez hiru urteko ikasketak ego-kiagoak dira. Baina bost urtekoa izango balitz, berdin egingo nuke.



Jon Albizu
20 urte, 5.autoko ikaslea
Lanian haseta pentsatuta daukat. Ez banu lanik aurkituko eta ikasten jarraitzekotan hiru urteko karrera egingo nuke, motzagoa delako.



Begoña San Martin
17 urte, BAG II.eko ikaslea
Modulo III egingo dut, Enpresen Gestio eta Admin-istraritza. Honekin lana aurkitzia errazagoa izango dela uste dut. Bestela Uni-versidadera joango naiz.



Iban Urizar
18 urte, UBiko ikaslea
Karrera bat egin behar dot baina ez daukat pentsatuta zein. Hiru urtekoa seguru-en, ze bost urtekoa hasi eta gero ez bajatzu gusta-tzen, gero aldatzea zaila da.



Eguzkiñe Aranbarri
18 urte, administraritza ikaslea
Ikasten jarraitzea pentsa-tuta neukan, baina admi-nistraritza amaituta lan egiteko aukera izan deza-ket. Eta horrelako aukerari ezin diot ezetzik esan."



Maria Arenas
17 urte, UBiko ikaslea
Nik idazkaritza egin nahi dut OPUSEan eta ez banaute hartzen enpresa-riales, bost urtekoa. Dena den, bost urteko karrerare-kin, lan aukera handiagoa dela uste dut.

Martxoaren 30etik -Maiatzaren 30era

Udaberri-Uda



Elgoibarko Merkataritza eta Zerbitzu Elkartea

Zozketa

* Sariak: TXANKAKUAKO dendetan gastatu ahal izango diren 35.000 pta.ko 6 erosketa txartel.

* Zozketa data: Ekainak 4

* Sari banaketa, ekainaren 24ean izango da Kultur Etxean.

Radiestesesia ikastaroa

Maiatzaren azken larunbatean hasita eta ekainaren hurrengo hiru larunbatetan, radiestesistaren teknikari buruzko (penduloaren teknika) ikastaroa izango da Kultur Etxean. Teknika hau, penduloaren bidez, edozein arazoren muina topatzean datza. Buruko edo belarriko minak, ondoezak, min neuralgikoak, asma, biriketako eta giltzurrunetako minak eta minbizia aztertuko dira ikastaroan. Prezioa 5.000 ptakoa izango da.

Ikastolako Batzar Nagusia astelehenean

Euskal Herriko Ikastolek maiatzaren 25a baino lehen sare pribatuan geratu ala publikoan barneratuko diren erabaki beharko dute. Elgoibarko San Bartolome Ikastolak maiatzaren 24an, astelehena, Batzar Nagusia egingo du Ikastolaren etorkizunerako funtsezkoa izango den erabakia hartzeko. Batzarra astelehenean iluntzeko zortzi t'erdietan izango da Ikastolako frontoian.

Euskal musika eta Rocka eskutik helduta




Maiatzaren 28an, ostirala, Elgoibarko Izarra Elkartek urtero antolatzen duen *Ez Dok Amaitu!*ren egitasmoaren baitan, *Guass* diskoteka euskal musika eta Rock and Rollez jantziko da. Gaueko 12etik aurrera, egungo eta lehenagoko musika euskalduna entzun eta dantzatzeko aukera paregabea izango

dute bertara hurbiltzen direnek.

Euskal diskoteka ezezik, Rock and Roll lehiaketa ikusteko parada ere izango da. Ikastaroa bukatu ondoren Haritz Dantza taldekoek erakutsitakoa praktikan jartzeko prest dauzkagu elgoibartar gazteak. 300 pezetagatik merezi izango du *guassera* urreratzeak.



**ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA**



93-94 IKASTURTEA AURRE IZEN EMATEA

III MAILAKO MODULUAK

PROIEKTATZAILE INDUSTRIALA
FABRIKAZIO MEKANIKOA
SISTIMA AUTOMATIZATUEN
MANTENUA (MUNTAIA)

ESKAERA EPEA

MAIATZAREN 13TIK 31RA

LEKUA/ORDUTEGIA

Erreminta Makina Institutua
San Roke Auzoa, 1
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: (943) 74 41 32
9:00-13:00 14:30-17:30



Elgoibarko Galizia Etxekoek Dia Das Letras Galegas jaia ospatu zuten pasa den aste bukaeran. Aste bukaerako jai egitarauaren barruan, argazkian agertzen diren Elgoibarko Tuna Anduriña eta Manzanedako Gaiteroen emanaldia azpimarratu. San Lazaro egoitzan hiruzpalau obra eskaini ondoren, Maalako iturrian gure kamara aurrean jarri ziren.

Ibilaldia-ra joateko autobusak

Aurten ere Elgoibarko Izarra Elkartek, Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzaz, autobusak antolatu ditu igande honetan Ondarrun izango den Ibilaldira joateko. Autobusak goizeko 9etan aterako dira Sigmako zubitik.

Ez da "discolight" ik egongo urrirarte

Pasa den astebukaeratik, guass diskotekan ez dago "discolight" deritzon saiorik larunbat eta igande arratsaldetan. Udala eta guass diskotekaren jabeen arteko kontratuaren arabera, opor sasoian eten egingo da saio hau datorren urria arte.


Buztin ikastaroa

Lurki, zeramika taldeak, Udala eta Foru Aldundiaren dirulaguntzaz, buztin ikastaroa antolatu du maiatzaren 24tik ekainaren 24ra bitartean. Ikastaroan, buztina tornioan nola landu irakatsiko da. Klaseak astelehenetik ostegunera bitartean izango dira, arratsaldeko 6etatik 9ak arte. Informazio gehiago nahi duenak, *Lurkik* Aita Agirre Plazan duen lokalera jo dezake.

Txikilibakio haur aldizkarian sarituak

Txikilibakio eskolarteko aldizkaria irakurtzen dutenen artean sari ezberdinak banatzen ditu Udalak. Udaberriko alean sarituak izandako ikasleak honako hauek izan dira: Asier Barrutia, Iñigo Canales, Ane Larrañaga, Ivan Rojo, Irune Gonzalez, Jon Garate Narbaiza, Mikel de Pablo, Iban Quintana eta Elena Molinero.

Sari hauetaz gain, Udalak zinemarako 10 sarrera zozketatu ditu eta irabazleak hauek izan dira: Inmaculada Ruiz, Nerea Sierra, Elisa Castro, Janire Eguren, Unai Muñoz, Jon Zubiaurre, Iñigo Arizaga, Maddi Sanchez, Begoña Merino eta Mireia Huidobro.



Ez dok amaitu! 93

MIKEL MARKEZEN KANTALDIA

Maiatzak 28, ostirala, gaueko 11etan, MAALAKO PARKEAN.

Oharra: Euria egiten badu, Guass diskotekan izango da.

Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra

Laguntzaileak: Elgoibarko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

Zabortegei zerbitzua

Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak Zabortegei zerbitzuaren ohizko ordutegia gogoratu nahi du: goizez, 8etatik 13etara eta arratsaldean, 14,30etatik 19,30etara.

Halaber, abuztuan eta irailean zaborrak botatzeko ordutegia aldatu egingo da. Izan ere, abuztuan goizez bakarrik egongo da zabortegei zerbitzua, 8etatik 17,30etara. Irailean, berriz, goizez, 8etatik 13etara eta arratsaldean, 14,30etatik 17,30etara. Zabortegei zerbitzua asteleheneretik ostiralera bitartean egongo da zabalik.

Enpresak sortzeko gida Kultur Etxean

Gipuzkoako Udal ezberdinek, Diputazioaren laguntzarekin, enpresa propioak sortzeko eman behar diren pausoei buruzko argibideak argitaratu dituzte. Gazteei zuzenduriko gida honetan enpresen forma juridiko ezberdinak sortzeko bete behar diren baldintza eta tramiteak agertzen dira. Gainera, Eusko Jaurlaritzak enpresa berriak sortzeko dauzkan programen berri ere ematen du. Gida, Altzola dorretxeko Kultura Zerbitzuan eskura daiteke.

Elgoibarko Batxiller Institutuko 3. mailako ikasleak sarituak

Batxiller Institutuko 3. mailako etika eta filosofia taldeetako ikasleek bi akzesit lortu dituzte Eusko Jaurlaritzak antolatutako "Hiesaren aurka sormena" lehiaketan. Sariak bideo eta idazlan ataletan egindako lanengatik jaso zituzten larunbatean Deustuko Unibertsitatean.

Saria ematen Jose Luis Ugarte itsasgizona eta Eusko Jaurlaritzako osasun sailburua den Iñaki Azkuna izan ziren. Bideo lana klase osoak

egin bazuen ere, saria jasotzerakoan lau ikasle egon ziren ordezkari gisa. Hona hemen saria jaso zuten eguneko argazkia. Ezkerretik eskumara: Manuel Rodriguez, Beatriz Blanco, Ainhoa Allica, Mikel Carrillo, Gari-koitx Furones eta Enrike Larrañaga irakaslea. Beheko iladan, Laura Daquinta, Oihana Esnaola, Nagore Dorronsoro, Unai Gutiez eta Bixente Alberdi irakaslea.



BEGIRADA BEREZIAK




*Giorgio Armani,
Christian Dior,
Ducci,
Gianfranco Ferré,
Vogue, Reporter,
Valentino, Zeiss,
Byblos.*

*Orain, MULTIOPTICAsen,
sortzaile handiek zuzan
jarrira dituzte begiak.
Bereizi egiten zaituzten
begiradak zuretzat.
Eguzkitarako Betaurrekoen
Moda Goreneko bilduma
berria.
Zure begientzat bakarrik.
MULTIOPTICAsen bakarrik.*

UZURI
OPTIKA
MULTIOPTICAS
San Francisco, 21 - ELGOIBAR

Uda denboraldirako jantzien desfilea egin zuten pasa den ostiral gauean Guass dantzalekuan. Jendez gainezka zegoen modeluen inguruko pasalekua. Argazkian ikus daitekeenez, neska-mutilek estilo paregabez desfilatu zuten Elgoibarko zenbait jantzi dendak utzitako arropak.



Objezioa indartu behar da KAKITZATEN ustez

Jende gutxi bildu zen, talde anti-militaristak pasa den ostiral arratsaldean antolatutako objezio eta insumisioari buruzko hitzaldian. *Kakitzat* taldeko kide batek objezio mugimenduaren historiari errepasua eman ondoren, insumisioak, gaur egun jasaten duen geldiunearen arrazoiak aztertu zituen. Bere esanetan "gartzelaratuak biktimizatzea izan da mugimenduaren akats nagusia". *Kakitzat* taldeak mugimendu anti-militarista indartzeko asmoa duela adierazi zuen, objezio fiskala, emakumearen objezioa, soldaduzka osteko objezioa eta abar bultzatuz.

Errotatxoak "Prebentzioaren astea" antolatu du datorren asterako

Errotatxok azken bi urteetan bezala "Prebentzioaren astea" antolatu du maiatzaren azken asterako. Ekintzak datorren asteazkena 26an hasiko dira "Droga trafikoa" izenburupean egingo den mahai inguruarekin. Ostiral arratsaldea haurrei eskeiko zaie; 5ak eta 7ak bitartean pilota partiduak, margoketa librea, dragoi txinoa, gozoki eta globo banaketa eta buruhaundiak egongo dira Plaza Handian. Arra-tsaldeko 8etan 15 urtetik gorakoek antzerkia ikusteko aukera izango dute Herriko

Antzokian. Debako "Oihulari-Clown" taldeak "Todo bajo Clown-trol" lana eskeiniko du.

Larunbat goizean, beste urte batzuetan bezalaxe, herri mailan lanean dabiltzan elkarte ezberdinek Plaza Handian urtean zehar egiten duten ekintzak azalduko dituzte. Eguerdiko letarako manifestadia deitu du Errotatxok eta bukatzeko, larunbatean bertan, gaueko 8etan Algara taldearen "Katzu, koka aitona" antzezlan izango da kiroldegian.

Haritz eta Udal Txistulariak Gasteizko Printzipalean

Larunbat honetan, hilak 22, Gasteizko *Printzipal* Antzokian, Juan Antonio Urbeltzen zuzendaritzapean, Donostiako Argia, Goizaldi, Arkaitz eta Lapurtarrak taldeekin bátera, Haritz Euskal Dantzari Taldea eta Udal Txistulari Taldea arituko dira. Herriko bi talde hauek Foru Aldundiak urtero antolatzen duen "Alakiketan" Euskal dantzen ikuskitzunean parte hartuko dute.

'LURRA ETA HIZKUNTZAREN EGUNA' BAZKARIAK

- ▲ Maiatzak 30ean, San Pedron.
- ▲ Izena emateko: Morkaiko M.E.
Elgoibarko Izarra
(azken eguna hilaren 27a)

ANTOLATZAILEAK: Morkaiko M. E.
Elgoibarko Izarra K. E.



NAGUSIEN
BAZKARIA
- Bazkaria
- Bertsolariak
- Dantzaldia
2.000 pta

HAURREN
BAZKARIA
- Bazkaria
- Jolasak
Debalde

"Musika mundua ez da nik uste naban bezain ideala"

Dultzaina ekarri zuen Elgoibarrera, "Mauxitxa" txarangaren sortzaileetako bat da, txistularia, bonbardinoa jotzen du, konposizio batzuk ere egin ditu,

koro parrokialean ere aritu izan da eta Musika Bandako zuzendari ordea dugu. Musikatik bizi ez den arren, musika da Txomin Mujikaren bizitza.

- Zer da musika?

- Dana. Oxigenua bezela barru-barruraino heltzen den zerbait. Alaitasuna ematen dizuna, batzutan tristura ere bai eta, nerezat, momentu honetan dagoen gauzarik ederrena.

- Umetatik al datorkizu musikarekiko zaletasuna?


- Bai, nik uste dot beti izan naizela musika zalia, txikitxikitatik. Halere, etxian ez dot musika girua izan, nere amamaren anaixak musikuak ziran, baina gurasuen partetik ez da eragin zuzenik egon.

- Zuek izan zineten Elgoibarren lehenak dultzaina jotzen.

- Bai. Urtero urtero Estellako dultzaineruak etortzen ziran Elgoibarrera San Bartolomietan. Guretzat hori "el non plus ultra" zan, hor egoten ginan tontuen pare euri entzuten. Gero, orain dala 22 urte, Rikardo Gorriti, Victor Zubiaurre eta neu elkartu ginan eta dultzainia jotzen ikastia erabaki gendun. Gure kontura hasi ginan eta gero Iruñako Gaiteroen Bandakoa den Javier Lakunzak lagundu zigun.

- Ba al dugu elgoibartarrok musikarako afiziorik?

- Bai, bai. Inguruetakoa beste herri batzuekin kon-



"Orain oso estimatua dagoen arren, lehen musikoa titiritero bat zan".

paratuta nik uste dot baietz. Elgoibarren bandia, txistulariak, dultzaineroak, koroa eta abar daude. Gainera ez da erretza, nahiz orain oso estimatua dauan, lehen musikua titiritero bat zan.

- Amets egin. Ezaiguzu zein ogibide gustatuko litzaizukeen izatea.

- Bueno, ni urte askuan egon naiz pentsatzen musikatik bizitzia, hori zan nire ametsa. Baina urtiak jun dira pasatzen eta konaturatu naiz mundu horretan ere, zoritxarrez, inbidixa

asko dauala, burruka asko, ez dala nik pentsatzen naban gauza ideala. Gainera ez da erretza, nahiz orain oso estimatua dauan, lehen musikua titiritero bat zan.

- Gaur egungo musikak zer esaten dizu?

- Musika tipo asko eitzen da baina guk ezagutzen dogun bezelako musika klasikoa oso gutxi. Gaur egun, beste korriente batzuk daude, modernuak... Baina ikusi beharko da 100 urte barru gaur egungo musika en-

tzuten dan, guk orain dela 200 urte eitzen zana entzuten dogun bezela.

- Zein da Euskal Herriko banden egungo egoera?

- Orain dala hogeitau urte banda asko galdu zian. Udaletxiak dirurik ez zaban ematen, rentabilia ez zan eta. Gero, jendia konaturatu zan kulturaria ere inportantia dala eta berriro ere, poliki poliki, bandak sortzen hasi ziren, kostata baina gogo handiz. Elgoibarko bandiak 108 urte dakaz. Gerra inguruan 11 lagun geratu zian, baina sekula ez da desagertu.

- Noizko, bandaren bigarren diskoa?

- Elkar disketxea prest dago. Guk nahi dugunean graba dezakegu. Aurreko diskuak oso harrera ona izan dau jendian aldetik, bigarren edizioa egin da. Baina zaila da gauza on bat eitzia, batez ere programa betetzia. Repertorixoa haundixa daukagu baina, zer aukeratu? Pentsatu dogu Bereziartuaren obrak sartzia, herriko konpositoriak... baina ez dakigu.

- Musika zuzendari izateko formularik ba al dago?

- Musikia ezagutziaz gain, sikelogia asko jakin bihar da, notak ezagutzeaz gain baita jendia ere eta, batez ere, sentsibilitate handia.

Jasone Osoro

Adelaida Astigarraga

Astigarraga loradendakoa



- Lora natural ala artifizialak?
- Nahiago ditut naturalak baina argitasunik ez dagoen etxeetarako artifizialak soluzio on bat dira.
- Gehien saltzen den lora?
- Garai honetan larrosa.
- Zeini erregalatu dizkiozu azken aldiz lorak? - Nere kuadrillako Victoriari, bere urtebetetzetan.
- Garestiak al dira? -Lehen bai, baina azken bi urteetan prezioak ez dira igo. Beste edozein erregalu baino merkeagoak dira.
- Amodio kontutan lorak erregalatzeko dira oraindik ere?
- Bai, gero eta gehiago.
- Larrosa ala klabelina? -Larrosa, dudarik gabe.
- Zenbat urtekin hasi zinen lanean? - Amari laguntzen 17 edo 18 urterekin.
- Lorei hitzegiteak eta abesteak on egiten diela esan ohi da.
- Nik behintzat egiten dut.
- Noiz duzue lan gehien? - Urte osoan zehar banatzen da. Baina Santu guztien egunean, Amaren egunean, orain udaberrian eta uda aldera jende asko ezkontzean...
- Lana eta gero zer duzu atsegin egitea? - Asteazken zehar deskantsatu eta aste bukaeran mendira joan eta noizean behin juer-gatxo bat...
- Tabakoa, bai ala ez? - Nik erretzen dut. Utzi beharko nuke, baina...
- Motorra ala bizikleta? - Bizikleta gehiago gustatzen zait.
- Oporretan hotela ala Kanpina? - Kanpina.
- Botatuko al duzu hauteskundera? - Ez dut uste.
- Ikusi duzun azken kontzertua? - "Flechazos" taldearena.
- Dantza herrikoa ala modernoa? - Modernoa.
- Siesta bai ala ez? - Ez. Siestan amets asko egiten dut eta nekatuagoa esnatzen naiz.
- "Solarium" ak? - Sobran daude neretzat. Nahikoa dut mendia eta hondartzarekin.
- Inor gorrotatzen al duzu? - Ez, ez dut uste.

Eduardo Sanz

BERTSOTAN

IKASKETA ERTAINAK ETA GERO ZER?

Doinua: Iparragirre abila dela.

"Insti" ta "Meka" bukaturikan dator berriro galera zer egitea pentsatuz horixe dugu galdera IMH, Uni edo lana batzuek dute aukera besteak aldiz gerauko dira kurtsoa errepikatuzera.

Gaur egunean jakina degu ondo gertatzeko premia gizarteko arazo larria dagoen lan eskasia gauzak honela da konbeniente ahal degun dena ikastia ta inportantia da baita ere noizbehinkako parrandia

Asier Lasuen

LOPEZ

IZOZKIAK
CROISSANTAK

San Bartolome 4

AITZ BIZKAR ARDOAK
ARDO ETA PATTARRA
PATATA SALMENTA



Errosario 18
Tel. 74 02 37

BATZOKIA

Jatetxea-Taberna

P. Muguruza 8. Tel: 74 08 21

UDA BERRI

EL GOIBAR

Plaza handitik Plaza gorrira bizikletan

Alberto Zelaia eta Jabi San Martin elgoibartarrak datorren ekainaren 22 edo 23an, oraindik ziur ez dakite, Moskuko Plaza gorrirantz abiatuko dira bizikleta gainean. Hilabete baten buruan 5.500 kilometro inguru egingo dituztela kalkulatu dute. Horretarako 200 kilometro bete beharko dute egunero. Bidaia finantziatu ahal izateko, Udalaren erantzunaren zain dauden bitartean, kamisetak salgai jarri dituzte polikiroldegian eta herriko tabernetan. Kamisetak, 1.200 pezetatan manga mozduna eta 1.500ean manga luzeduna, salgai daude. Beraiek esan digutenez, ONDA CERO irrati katearekin ere harremanetan ari dira sponsorizazioa lortzeko.

Hiru talde elgoibartar futbol salako finaletan

Elgoibarko Ikastola eta Herri Eskolako hiru futbol sala talde, Gipuzkoako txapelketako finalerara heldu dira joku eskolarren barruan. Final guztiak larunbat honetan jokatuko dira Donostian.

Ikasotzak taldeak goizeko 9 t'erdietan jokatuko du finala Azkoitiko Xabier Munibe ikastetxearen aurka. Beranduago 11 t'erdietan, Herri Eskolako Lepoluzeak taldeak ere Azkoitiarren aurka jokatuko du eta, azkenik, 12 t'erdietan, Ikasonenak Donostiako San Jose de Calasanz ikastetxearen kontra arituko dira.



Yolanda Mateos

Euskadiko Futbol Seleksioko kidea

-Noiz hasi zinen futbolean?

-Txikitan. Sigmako frontoian mutilekin futbolean ibiltzen nintzen. Ekipoan 17 urterekin hasi nintzen jokatzeko.

-Zein taldetan jokatzen duzu orain? -"Eibartarrak" taldean.

Hemen inguruan gertuen daukadan da. Gure taldean adin guztietako neskak gaude. Nesken futbolean, ez dago kategoriarik; 14 urtetik hasita edozein edade arte. Gure taldean gazteenak 16 urte ditu, baina gaztetxoagoak ere badaude.

-Nola zabiltzate orain? -Liga Nazionalea jokatuko dugu eta laugarren gelditu gara. Postu oso ona lortu dugu kontutan hartuz iaz Gipuzkoako ligan geundela.

Orain Erreginaren Kopa jokatzen ari gara. Final zortzirenetako lehen partidua 3 eta 1 galdu genuen Sondikakoaren aurka. Orain han jokatuko behar dugu eta 2 eta 0ko emaitza lortuz gero, badugu final laurdenetarako pasea ziurtatuta.

-Zer helburu duzu futboleant?

-Talde sendoago batean jokatzea edozeinentzat da helburu. Izan ere, eskaintzak eduki ditut baina ni gustora nago "Eibar-



tarrak"en. Seleksioan jokatzea, ordea, garrantzitsua da. Ni Euskadiko seleksioan nago, duela hiru urtetik. Aurten Alemaniaren aurka jokatuko dugu eta 3 eta 1eko emaitzaz irabazi genien. Nazioartean mailan, Euskadiko seleksioa onenatarikoa da.

-Zergatik ez dago futbol talderik Elgoibarren?

-Orain futbol talde bat atera nahian dabilta, Zarautzen bigarren gelditu zen neska taldearekin. Datorren urterako ligan jokatzeke asmoa dute. Beharbada, orain arte ez da talderik osatu jende faltagatik. Nesken aldetik, futbolerako zaletasuna eskasa izan da beti.

- Adina: 21
- Belar artifiziala ala naturala? Naturala.
- Aste bukaeratan? futboleant jokatuko eta batzutan juergatxorenbat.
- Jokalari bat? Zamorano.
- Zenbat gol aurten? 15, iaz 45.
- Praka motzetan? Oso eroso.

IDARRAGA
KAFEAK

Eguneroko errealdia

San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

TINDATEGIA

ARKUPE

Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91

MEKANOSA

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Errosario 30 tel: 74 02 84 Elgoibar

Elgoibarko mendi itzulia

Datorren igandean, hilak 21, burutuko da Morkaiko Mendizale Elkartek antolatutako Elgoibarko mendi itzulia. Mendaro udalerrri bilakatu zenetik itzuliaren ibilbidea laburragoa da. Mendizaleek 30 kilometro egin beharko dituzte 8 edo 9 orduren buruan. Elgoibarko lehen itzulian 8 ordu t'erdia eman zituen lehen sailkatuak, 45 kilometro betetzeko.

1927. urteko abuztuaren 7an burutu zen lehendabiziko aldiz, Elgoibarko mendi itzulia. Itzulia antolatzeko ideia bi kuadrilen arteko eztabaidatik sortu zen. Batzuek, Elgoibarko itzulia 12 ordutan egin zitekeela zioten eta beste batzuek, ordea, ezinezkoa zela denbora horretan burutzea. Herriko alkate zen Antonio Arrillaga jaunak eta eztabaida guztietan zegoenak, "Elgoibar Foot Ball Club" elkarteari itzulia antolatzeko ideia proposatu zion. Berehala sortu zuten antolakuntzarako komisioa.

1927. urteko abuztuaren 7an, itzulian parte hartu behar zuten 28 mendizaleek, igandeko ohiturari leial, goizaldeko 4etan meza ospatu zuten. Ondoren, 5 t'erdietan, herriko alkate jaunak, beterano kategoriako



OJANGUREN

Lehen martxa neurtuko sari banaketa. Francisco Arano Memoriala. (1955)

itzuliari hasiera eman zion. Hiru mendizalek hartu zuten parte: Modesto Iriondok, Pablo Etxanizek eta Bittor Alberdi, "Patxillok".

5,30etan, puntuan, Bazigalupe hildako mendizalearen arimagatik, minutu betez, isilean geratu ziren, berehala Malzaga alderantz abiatzeko.

Ibilbidea

Benetan gogorra zen Elgoibarko itzuliaren ibilbidea. Elgoibartik abiatuta honako leku hauek zeharkatu behar izan zituzten: Maltzaga, Kara-

kate, Atxolin, Irukurutzeta, Azkarate gaina, Urnabitza, Madarixa, Otarre, Gaintxipixa, Sasiolako zubia, Azpilgoeta, Arnoate, Urkarregi, Iruiturri, Kalamua, Saturixo eta Elgoibar.

Urnabitza gainetik pasatzean, hiru mendizale hobetoen sailkatzen zituen klubarentzat Athletic de Madrid taldeak trofeo bat eman zuen. Elgoibarko "Foot Ball Club" taldeak lortu zuen saria.

Urte hartan Zornotzako Andres Espinosa izan zen garaile.

PINTURAK

- Fatxadak
- Komunitateak
- Mota guztietako lanak

San Roke 30 behea Tel. 74 36 52



MAPFRE
ASEGURUAK
Mari Luz Rojo


Mota guztietako aseguruak zure esku

San Frantzisko, 34 Telf: 74 05 82 - 74 14 04


Kafetegia

PITXINTXU

Done Frantzisko, 27
☎ - Fax 74 32 06
20870-ELGOIBAR (Gipuzkoa)



***Aurreinskripzioa zabalik dago
maiatzaren 13tik 30era bitartean.***



Euskal Telebistak Bandaren igandeko kontzertua grabatuko du

Elgoibarko Udal Musika Bandak igande honetan, eman behar duen kontzertua, Euskal Telebistako kamarek hartuko dute ondoren emitituko den programa baterako. ETB eta Megabideo produktorearen artean koproduzitutako programa honek, "Kiosko" izena izango du eta Euskal Herriko bandei buruzkoa izango da. Euskal Telebistak eta Megabideok igandero bandaren baten kontzertua grabatuko dute eta azken grabazio eguna uztailaren 25a izango da.



Jende ugari biltzea espero dute Bandakoek igandean eskainiko duten kontzertura.

"Kiosko" programan Euskal Herriko 11 banda agertuko dira: Billabonakoa, Eibarkoa, Durangokoa, Irungoa, Ertzantzaren banda eta Elgoibarkoa besteak beste.

Programaren izenak dioen bezala, kontzertua kiosko baten gainean izan beharko da. Horregatik grabazio egunerako egurrezko egitura duen kiosko bat inprobisatuko da Plaza handian.

Elgoibarko Udal Bandaren kontzertua 12,30etan hasiko da eta honako obra hauek joko dituzte: "Desde mi rincón", "Flote- bussche", " Los ríos", "Rapsodia Vasca" eta "Delta Mars".

Kontzertu egunerako, kioskoaren inguruan eserlekuak jarriko dira, entzulegoak ahalik eta erosoentzuz dezan kontzertua. Izan ere, jende falta izan da "Kiosko"

programako erduradunek izan duten arazorik handiena. Horregatik, kontzertura jendea gerturatzeko deialdia zabaldu nahi du Elgoibarko Bandak. Udal Banda "Kiosko" programan agertzen deneko emisio ordua eta data aurrez ezagutaraztera emango da.

Plaentxin kontzertua

Datorren larunbatean, hilak 29, Elgoibarko Bandak kontzertu bat eskainiko du Soraluze Abesbatzarekin batera Plaentxiko parrokiaren gaueko 10etan.

Kontzertuaren lehen zatian Elgoibarko Udal Bandak hiru lan joko ditu. Bigarren zatian, berriz, Soraluze abesbatzarekin batera lau obra eskainiko dituzte: Aleluya "El Mesias", Nabucco "Coro de esclavos", Plazentziatarra zeruan eta Agur Jaunak.



Salvador Celaya
ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94

Tik-Tak

HAUR ERROPA DENDA

Errosario 21, ☎ 74 17 15

22 Larunbata

19,30 ZINEA

"Sneakers"(Los fisgones)

USA 1992

Zuzendaria: Phil Alden Robinson

Aktoreak: Robert Redford, Dan Aykroyd, Ben Kingsley.

23 Igandea

06,30 ELGOIBARKO

ITZULIA MENDIZ

Irteera: Morkaikoren lokala

Antolatzailea: Morkaiko M. E.

16,30 ZINEA

"Sneakers"

19,30 ZINEA

"Sneakers"

24 Astelehena

18,00-21,00 BUZTIN IKASTAROA

Tokia: Aita Agirrerren plaza

Antolatzailea: LURKI

Ekainaren 24a arte.

19,30 ZINEA

"Sneakers"(Los fisgones)

20,30 IKASTOLAKO BATZAR NAGUSIA

Gaia: Ikastola publiko ala pribatua

Tokia: Ikastolako frontoia

25 Asteartea

20,00 HITZALDIA

Gaia: Mendiko istripuak

Hizlariak: Ramon Garate eta

Antxon Burcio

Tokia: Kultur Etxea

Antolatzailea: Morkaiko M. E.

26 Asteazkena

21,00 HITZALDIA

Gaia: Droga trafikoa

Hizlariak: Askagintzako kide bat

eta Donostiako Audientziako epailea.

Tokia: Kultur Etxea

Antolatzailea: ERROTATXO

27 Osteguna

15,00 TAUN-TAUN

TXOTXONGILOAK

Obra: "Lam eta Lorea"

Tokia: Herriko Antzokia

OHoko haurrentzat.

20,00 ZINE ETA DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Torre del Trango eta Salto del Angel

Tokia: Herriko Antzokia

Antolatzailea: Morkaiko M. E.

28 Ostirala

11,00 JOSE LUIS UGARTE

Tokia: Herriko Antzokia

Antolatzailea: Batxillergo Institutua

17,00 PREBENTZIOAREN HAUR JAIALDIA

Pilota partiduak, margoketa librea, dragoi txinoa, gozoki eta globo banaketa eta buruhaundiak.

Tokia: Plaza Handian

Antolatzailea: Errotatxo

20,00 ANTZERKIA

OIHULARI CLOWN taldearen

"Todo bajo Clowntrol" lana

Tokia: Herriko Antzokia

Antolatzailea: ERROTATXO

19,00-21,00 PINTURA ERAKUSKETA

Egilea: Shanti Oriá Etxaniz

Tokia: Kultur Etxea

Antolatzailea: Udal Kultur Zerbitzua

Ekainaren 13a arte.

23,00 MIKEL MARKEZEN KANTALDIA

Tokia: Malako parkea. (Euria egiten badu Guaslean)

BERTSO JAIALDIA

Maiatzak 21 ostirala

Gauko 10,30etan Kiroldegian

Bertsolariak:

-Andoni Egaña

-Jon Maia

-Xabier Arrizabalaga *Ziarda*

-Sebastian Lizaso

-G. Meabebasterretxea

-Xabier Euskitze

Antolatzailea:

E.L.H.I.ko ikasleak

Artegi LEHIAKETA

3. Galdera: Idatz itzazu lehen mailan jokatu duten hiru futbolari elgoibartarren izen abizenak.

Maiatzari dagozkion hiru galderak egin ditugunez bidali erantzun zuzenak maiatzaren 30a baino lehen **BARREN**era. Ez ahaztu hiru erantzunak asmatzen dituzuenon artean **GARBIGAILU ZORAGARRI BAT** zozketatuko dugula.

Etxebizitzak

Etxebizitza salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Maala inguruan.
Informazio gehiago nahi baduzu deitu 74 12 39 ra.

Magisteritza eta administrazio tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.
Deitu 74 04 13 telefonora. Edurne eta Maitane.

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pta.
Alberto: 74 14 94

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 22 74 Egun osoz.

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Merke.
Tel: 74 28 77. Jose

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako motoarra. Neurriak: 3 x 1. Prezioa: 125.000 pta.
Tel.: 19 92 46 (Juanra)

Lana

Arte ederretako ikasleak (2. maila) GEOMETRIA irakasle bat behar du. Maila altua.
Carolina 74 44 51.

Salerosketak

Lau urteko haur batentzat bizikleta bat erosiko nuke.
Deitu 74 30 75 telefonora.

Arregitorren garajea salgai. Prezio interesgarria.
Tel: 74 27 39

Bi bizikleta motoreta saltzen ditut. BMX modelokoak.
Tel: 74 05 35

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

Ingeniero industrialak **matematika, fisika eta kimikako klaseak** ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Tel.: 74 13 11. Javier

Garaje bat saldu edo alokatuko genuke. San Roken (pista beltzean).
74 08 79 Julian edo Maria Jesus

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan.
94-6201918 ra (Gorka).

18 belozidadedun mendiko bizikleta bat saltzen dut. Kanbio sinkronizatuak, adarrak, "calapies"ak eta beste osagarri batzuk.
Prezioa: 38.000 pta. Astebukaeratan 74 15 35

"Asolo Super-soft" (42zkb.) botak eta "Sofitex" txamarra saltzen dut. Prezioaz hitzegiteko,
Aritza 74 05 90.

Paseoko bizikleta saltzen dut. "Peugeot" kanbioduna.
Prezio onean. Tel: 74 22 67 Myriam.

Morkaiko M.E.



50. urtemuga

MAIATZAK 25

8etan Ramon Garate eta Antxon Burcioren HITZALDI-PROIEKZIOA
GAIA: Mendiko istripuak eta hauen prebentzioa.
TOKIA: Kultur Etxea

MAIATZAK 27

8etan Adolfo Madinabeitiaren DIAPOSITIBA ETA ZINE SAIOA
IZENBURUAK: "Salto del Angel" eta "Gran Torre del Trango"
TOKIA: Herriko Antzokia

Errosario 17 ☎ 74 02 97



“Europearrek dutena
europear preziotan lortzen dudanean
sinestuko dut European.”

 VOLKSWAGEN



Golf Europa, Europear preziotan.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR